

Or piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 48. alea 2002ko maiatzaren 3a

Udaleko Euskara Teknikaria

“Euskararen erabilerak nekez egiten du gora”



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Lonbide taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07




Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Instalaciones Kalebarren S.L.



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



Klik Zoro Gunea

AITOR UNAMUNO

Udaberriak erdi-lanak egin orduko, iritsi dira herrira gona motzak eta eguzkitako krema usaina. Urtero gertatu ohi da, goiz edo beranduago, eguraldi onarekin batera, baina aurtengoan ez da izan Udaberriak ekarri duen bakarra, bada beste zerbait Soraluzetarrok aztoratu gaituena; Internet.

Eusko Jaurlaritzak sustaturiko ekintza iritsi da guregana eta harripetatik ere agertu dira cybersoraluzetarrak. Ehundaka izan dira izena eman dutenak, jaixetako Bakailao txapelketa ondorengo dastatzeak ere ez du izaten horrelako afluentsia masiborik. Baina emozioa eta arriskua bai, ez dut uste gela urdinean ogi pusketa saltsa berdetan bus-titzeagatik inork paperak galduko dituenik.

Gazteena ulertzekoa da. Punta puntako teknologiaz jabetzeko edozertarako prest gaude; Bustamantaren abestiak dakartzan sakeleko telefonoa erosteko asteburuetakotxikiteo barik gelditu edo, edonor beldurtzeko besteko maileguetan sartu bigarren eskuko BMW M3 superturboa erosteko, ...

Hala ere, ni guztiz deskolokatuta naukana etxeoandreena da. Ez nuen sekula pentsatuko uda bezperako bazkalosteko eguzki epela ezergatik abandonatuko zutenik. Esplikatu al die inork ordenagailuaren monitorea begiratzeak ez dituela morena jarriko? Ah, ez. Ba hortik hasi beharra dago.

Estudio soziologiko hau bukatzeko, hirugarren "arrisku" taldea falta da, jubilatua. Badirudi, gutxien mobilizatu den sektorea azken hau izan dela eta honek ere badu bere azalpena; komentatu didatenez KZ Guneko arduradunari ordenagailuetan Microsoft Txintxon eta Brixka Online programak instalatzea ahaztu zaio.

Telegrapak

Plaentxiako Realzale eta Atletikzalien partidua preparatzen dihardue. STOP. Ikuskizun izugarria izango da. STOP. 3 Baloikin jokatu bihar ei dabe. STOP. Golen bat sartzeko probabilitadadia, %1etik %3ra jasotzeko. STOP. Soraluzeko polikiroldegixa Gizateriaren Monumentu izendatu bihar dabe. STOP. Eraikin honek gordetzen daben balixo historiaguaittik. STOP. Igerilekuan paleolito garaiko bi hazur topau dira. STOP. pelotalekuan azaldu diran takoak berriz Erdi Arokoak dirala pentsatzen da. STOP. Zine aretuan ez da ezer aurkittu. STOP. 80 Urtetik gorako jentia goguan dauka Polikiroldegixa zabalik zeguan garaixan Plaentxian kirola egitten zala. STOP. Pil-pileanek horrenbeste akats izaten jarraitzen badau. STOP. Lehiketari "Topau akatsak" izena ipini eta piruletak zozketatzen hasi biharko dogu. STOP. Euskarak ofiziala izan bihar dau. STOP. Bizi euskaraz. STOP. Datoren alerarte, izan bixkor. STOP.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.F.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORALUZETIKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

"Txarra denik esaten ez naiz atrebitzen, sasoi kaskarragoak ere biziko zituelako ziu-rrenik, baina kezkatuta nago. Erabilerak nekez egiten du gora eta ezagutzan ere nago atzera ez ote gabiltzan. Hazkunde begetatiboa, jaiotza eta heriotzen arteko aldea, negatiboa daukagu; eta hildakoen artean euskaldunak gehienak."

Mikel Leunda EUSKARA TEKNIKARIA

Zorion agurrak



Garazi Jauntsarats
Zorionak gure
poxpolinari!!!
2002 - 5 - 8
Xabier, amatxo eta
aitatxoren partez.



Eider Varela
Zorionak morenaza!
2002 - 4 - 22 19 urte
Lagaixozu eskixekin
pentsaziari ta hasi
zaitte udarako prepa-
ratzen.Kuadrilakua



Oskar Jorge
2002-5-6 28 urte
Zorionak Euskitze!!!
Laister jubilaziñua
eskatu biharko dozu
Sorginen Larazetik.
Kuadrila, familia
eta Pil-Pileanekua



Xabier Gallastegi
2002 - 4 - 22
Zorionak mutiko!!
Jarraitu bixi bixi eta
Muxu haundi bat!
Aita, ama eta Miren.



Olatz Sebal
2002 - 5 - 3
Zorionak Preziosa!!
Lastan pila bat.
Etxekuen partez.




Ane Kintanilla
2002 - 4 - 30
Zorionak !!!
Polittori!
Tio ta tian partez.



Estibaliz Deza
2002 - 5 - 1 22 urte
Zorionak !!!
Gero polittagua
zara.
Etxekuen partez.



Jone Olamusu
2002 - 4 - 21
Ai, ai, ai!
Zorionak !!!
Etxekuen partez.



Goizane Aldazabal
2002-4-28 19 urte
Zorionak bikote!
Noizian behin bajau
zaittie baserritik
kalera, hama ez

Gurutze Ariznabarreta
2002 - 4 - 30
Zorionak Gururu!!!
Pil-Pilekuen eta
etxekuen partez.

hildakua

Encarnación Roldán
Paula Arano
Jesus Mari Aranzasti
jaiotakua
Xabier Montero
Sandra Hidalgo

Gutunak

SALABERRIA JAUNARI:

Pil Pilean aldizkarian agertutako zure eskutitzari zehaztasun txiki batzuk egitea besterik ez dut nahi.

Nik Kultura Batzordean Soraluzeko monografia historikoaren gainean egindako proposamena, iada badagoenaren berrargitalpena egitea, hizkuntza ofizial bieran noski, edo Ramiro Jaunak egindako monografiak denbora tarte bat hartzen zenez bakarrik, berri bat egitea izan zen, Ramiro Jaunak egindakoa barne hartuta noski.

Legealdi honetan zehar inoiz, eta hala baieztatu dezake Euskara Batzordeko lehendakariak eta Batzordeak berak, ez dut euskararen kontrako jarrerarik izan. Logikoki besteekiko ikuspegi ezberdina daukat, baina horrek ez du euskararen kontra nabilenik esan nahi. Pil

Pilean aldizkariaren eta AEKren kasuan, esan nahi nizuke nere ustetan biek ezin dutela zergadun guztien kontura "bizirik iraun", hala bada, edozein erakunde edo pertsona esan bailezake: haiek udaleko diruarekin finantzatzen badira, ni zergatik ez? Ni ados nago ekimen eta erakundeek udalaren laguntza izan behar duten eritziarekin, ez dago inongo zalantzarik, baina horixe, laguntza bat. Pil Pilean 750.000 ptako laguntzatik 1.750.000pta. jasotzera pasatu da. Zenbat erakunde izango dira bidezkoa ez dela usteko dutenak. Zergatik batzuk bai eta beste batzuk ez? Eztabaida luze eta zabala izan daiteke eta ez da nire asmoa, esan nahi dut bakarrik NI EZ NAGOELA EUSKARAREN KONTRA.

Adeitsuki.
Javier Núñez
Partidu Popularreko
bozeramailea

Agenda

GAZTELUPEN KONTZERTUAK
Maiatzaren 3an Ostirala (23:00etan)
Rick Treffers (Kontzertu akustikoa)
Maiatzaren 5ian Domekan(22:00etan)
DANI PEREZ trio
Jazza Kataluniatik

IRUKURUTZETA EGUNA
(Maiatzaren 5ian)

11:00etan Mezia Pago-Bedeinkatun
14:00etan Bazkarixa

PELOTA TXAPELKETIA
(Maiatzaren 8xan)

20:30etan Asier eta Iñakiren Omenezko I. Pelota Txapelketako bilera Gaztetxian.

GAZTETXUENDAKO
ARGAZKI RALLYXA *(Maiatzaren 11n)*

ERROMERIXA EGUNA *(Maiatzaren 11n)* Bergaran (9:30etan Zubixan)

(Erredakzioan itzulia)
EUSKARAREN

OFIZIALTASUNAREN ALDEKO
GIZAKATEA *(Maiatzaren 11n)*
Autobuserako txartelak; Gila, Gaztelupe eta Arranoan.

HERRI URRATS *(Maiatzaren 12an)*
Autobuserako txartelak; Gila, Gaztelupe eta Arranoan.


TXAN MAGOA *(Maiatzaren 14an)*
Plaza Barrian.

EPAKO ESKULAN TAILARRAK
(Ekainaren 10etik 21era)
Bolilluak, makramiak... emotia zabalik
dao: 943 75 30 17 Telef.

62XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA
TXURRUKAN
(Ekainaren 8xan)
Izena emoteko epia: maiatzaren 21a.

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13



ESOZIA

Erretegi
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Zer irizten dotsazu?**Zer irizten dotsazu herrixan egin bihar diran etxebizitzeri?**

Patxi Zabaleta
76 urte jubilatua

Eragin ona eukiko dikela pentzatzen diat . Kanpotik jentia etorriko dek. Ondo zegok etxiak hemen eittia, bestela etxe berrie nahi duena kanpora juan beharko dek bila.



Ane Yabar
22 urte ingurugiro teknikua

Eragin ona eukiko dabe. Jente gaztia hemen geratu leike. Baina ikusi bihar da ze posiziotan jartzen dittuen eta ze preziotan. Ze oin karuegixak jartzen ditue. Ez jataz gustatzen zela gelditzen dian, ze ez dabe mantentzen beste etxiekiko kordinaziño eta fatxadetako kolorerik



Mikel Ballesteros
25 urte langilia

Ona izango da herrixandako. Jentiak etxiak erostia nahi dau, baina karuak badia ixa ez da hain ondo egongo. Honekin herrixa haunditu ein leike eta kanpotik jentia etorriko da, eibartik erosi dittu jendiak etxiak. Eibarren baino merkiauak darelako.



Francisco Hernandez
44 urte mekanikua

Ondo iruditzen jata merkiak badia ondo gaztiendako be ondo etorriko dia, ze etxe zarrak be ez dare asko.



Pili Calleja
34 urte etxeoandria

Ongi pentzatzen jata etxe biharrian dabizenendako, gainera herrixan bertan dialako. Kanpoko jentia etorriko da plaentxian kanpuan baino merkiao darelako.



Itziar Burunza
34 urte musika irakaslia

Ondo iruditzen jata, komenigarria da, gazterixiak ez dauka nun sartu, pixkat garestixak izan leizke baina beste herrixetan baino merkiauak dia, ze kanpoko jente bastante dator hona gero gertau leike hemen lo eitteko besterik ez egotia jende hori baina bueno.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Soraluzetik tranbia pasatuko da

Gure ibarrean egingo den garraiobide eta komunikazio proiekturik handiena, tranbia, aurrera doa. Orain urte batzuk tren jartzeko aukera baztertu ostean, tranbia jartzeko egitasmoaren lehenengo zirriborroa urtarilla inguruan eman zien udalei Eusko Jaurlaritzak eta alkateak jakinarazi digunez, "tranbia ipintzeko proiektua onartuta dago, bai bailarako alkatien aldetik eta bai Jaurlaritzarenetik". Tranbia honek, bailara guztia komunikatuko du. Leintz-Gatzagatik Mutrikuraino Deba ibar osoa zeharkatu eta herriak elkarrekin lotuko dituen bizkarrezurra izango da.

Eusko Jaurlaritzak Deba bailara aukeratu du Euskal Autonomia Erkidegoan aintzindari izango den proiektu honetarako; izan ere, Euskadi osoan, pisu ekonomiko hadienetarikoa duen eskualdea izan arren, garraio publiko aldetik



hutsune larriak ditu Deba ibarrak. Oraindik ez dago lanak noiz hasiko diren jakiterik, Jaurlaritzak eta udalak proiektuaren zirriborroaren gaineko eztabaida fasean daude eta. Gainera, tranbia martxan lanak fase ezberdinetan egingo dira; lehenik Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati lotuko dira, ondoren Eskoriatza eta azkenik Maltzara bidean jarriko da tranbia. Alkatearen hitzetan, tranbia herriaren erdialdetik pasatzeko aukera da posibleena, egun martxan dauden sarbide-irteeren hobekuntza lanak amaitutakoan, horrelako egitasmo bati aurre egiteko moduan izango ei gara eta.

Ezaugarri Teknikoak: Luzera: 18,6 m, Zabalera: 2,3 m, Jarlekuak: 30-40 m
Bidaiariak: 131-134 m, Pisua: 16,7m

Kostuak

Eraikuntza: 76,929 m, Materiala: 21,636 m, Bidaiariak: 3,6-5,4 milioi

KZ Gunea inauguratu da



Alberto Sudupe alkateak, apirilaren 30ean inauguratu zuen ofizialki Soraluzeko KZ Gunea. Dagoeneko, hilabete baten, 260 Soraluzetar baino gehiagok eman dute izena KZ Gunean. Jaurlaritzak aurrikusitakoaren arabera, 350 era-

biltzaile inguru urreratzea izango litzaiteke Soraluzeko KZ Gunearen helburua. Itxura guztien arabera, kopuru hau gainditu egingo da eta 350 soraluzetarretik gora jasoko dute interneten berri. Alkatea oso gustora azaldu zen KZ Gunea lortzen ari den arrakastarekin eta honek etorkizunean izango duen garrantzia azpimarratu zigun. Debagoienean bezala, Deba Barrenean ere ba omen dago bailarako herri guztiak eta Azkoitia, zuzenean komunikatuko dituen fibra optikoa jartzeko Debegesak zuzentzen duen proiektu bat. 3-4 Urte barru, Debagoienan egin den moduan, Deba Barrenean ere, bailarako proiektu telematiko bat izango omen dugu.



Ibai-eder soziedadea

Beste bat ematen du, ezta? Ba sa-soi bateko "Alcazar" joan zen zapatuan inauguratu zuten, izen berriaz. Jokin apaizak bedeinkatu zuen soziedade berriztua, eta ondoren herriko elkarte desberdinak lunchera gonbidatu gintuzten. Eskerrikasko. Pako Uzinek esaten duen bezala, "lehengo aldian, hotela ipiñi juek! Hotela!" ..

Egoitz Unamuno eta Jon Basauri

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



BELARZAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telefonoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



Arrizabalagako bizilagunen salaketa

Arrizabalaga baserriko bizilagunek UTEB-1 enpresaren aurkako salaketa aurkeztu dute Udalean, A-1 (Eibar-Gasteiz) autobidearen eraikuntza lanetan, Ezosi auzoko Arrizabalaga baserri inguruan egiten diharduten leherketen ezegokitasunagaitik. Udalak idazkiok enpresa salatuari bidaltzea erabaki du, egoki derizkion azalpenak aurkezteko aukera izan dezan. Gipuzkoako Foru Aldundira ere bidaliko dira idazkien fotokopiak, adierazitako inguruan egiten ari diren lanek, bertatik hurbilen dauden etxebizitzetan sortu lezakeen zarata bi-brazio eta abarren eragin mailaren gaineko txostena eskatuz. Aipatutako leherketek agindu tekniko guztiak betez egiten diren eta bere garaian onartu zen ingurumen-inpaktuaren azterketarekin bat datozen ala ez jakin nahian.



Arrizabalaga baserriaren azpian leherketa handiak izaten dira, zultatze lanegaitik.

Bi liburu zahar berriztuko dira

“Penas de Cámara 1.588-1693 y 1.709-1.818” izeneko bi liburu zahar berriztuko dira hurrengo hilabeteetan. Berrizketa lan hauek egiteko, 1.807,84 euroko aurrkontua onartu da.

Udako Ikastaroetarako dirulaguntzak

Aurten ere, UEU eta EHU ko Udako Euskarazko Ikastaroetarako dirulaguntzak banatuko ditu Udalak. Dirulaguntza hauek ikastaroaren matrikularen %50^a ordaintzen dute. Dirulaguntza hauek eskatzeko, ikastarorako egindako matrikula aurkeztu beharko da Udal Bulegoetan.

Zuzenketa


Aurreko alean, Santa Ana kaleko etxebizitzak Hondamen Ekonomiko Egoeran izendatuak izan zirela zioela agertu zen informazioa, ez zen zuzena. Oraindik ez dira izendatu, izendapenerako espedientean zabaldu da bakarrik. Horrez gainera, etxebizitzak jabeek jakinarazi digutenez, ez dago lur azpiko zakar ontzien lanen eta parreko hormaren arteko pitzaduren artean erlaziorik ez dagoela ondorioztatzen duen azterketarik.

Egoitz Unamuno

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Limpiezas
industiales

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE



HNOS. BENITO
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Mikel Leunda “Administrazioaren euskalduntzean zer esan handia dauka herritarren eskaerak”


Ordiziarra da eta 32 urte ditu. Filosofia eta letretan lizentziatua da. Irakasle moduan, Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartean, EKBn, Egunkarian eta AEKn jardun izan du lanean. Orain 4 urte-tik hona, Soraluzeko Udaleko Euskara Teknikaria da. Berarekin hitz batzuk trukatu ditugu, Soraluzen euskararen normalizazioaren inguruan bizi dugun egoeraren inguruan gehiago jakin nahian.

Zein da Euskara Teknikariaren lana Soraluzeko Udalean?

Soraluzeko Euskara Biziberritzeko Planaren inplementazioa dut zeregin, eta beronen betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Orain bi urte onartu zuten Udalak Euskara Biziberritzeko Plana. Ordura artekoan jardun nahikoa inprobisatua zena nolabait arautzera etorri da plana, erregulatzeraz. Praktika teorizatua da orain egiten duguna. Eta nago, ezinbestean behar duela horrela, gizarte arloko gaietan ez baitago konponbidea modu arrazionalen topatzerik, aurrez arazoaren zergatia ongi aztertzen ez bada.

Zein dira gaur egun Udalak eskuartean darabiltzan ekimenik garrantzitsuenak?

Biziberritzeko Plana daukagu errefereente. Planaren azken xedea euskararen normalkuntza da, euskararen erabilaren normalkuntza. Finean euskaraz aritzeko aukerak areagotzea dugu helburu. Eta horretara jarrita dauzkagu indar eta ekimen guztiak. Zaila egiten da ekimen garrantzitsuenek hitz egitea, ekimenak ez direlako zera solteak, elkar elikatzen dutenak baizik, eta guztiak dira inportanteak. Egia da ahalegin berezia egin dugula adin tarte gazteenetan, bertan nabari den hizkuntza gaitasunaren hobekuntza ikusirik, soziolinguistikoki errentagarriagoa egiten baita ahaleginak biztanleriaren arlo horretara bereziki zuzentzea. Baina berriro diotsut egitasmo integrala dela gurea. Konbentzimendu osoa daukat, hizkuntza biziberritzeko ahalegina gizartea eratzen duen konplexu osabetezkoak soilik eraman dezakeela aurrera.



Euskara Teknikariak Udaleko Bulegoko txoko batean dauka lantokia.

“Biak dira beharrezko, bai herri mugimendu ongi antolatatu eta eraginkor bat, bai botere politikoa ere”

Jaurlaritzaren Euskararen Biziberritze Plana eta Kontseiluaren Bai Euskarari Plana uztartzea lortu al da Soraluzen?

Ongi uztartu ditugu biak; txukun esango nuke nik. Uztartzeko zailtasunak gehiago dira borondate kontua, zailtasun teknikoak baino. Finean, apenas dago alderik batetik bestera. Ikuspuntua dute agian ezberdina, bata, Jaurlaritzarena, administrazioaren ikuspegitik egindakoa delako eta gizarte erakundearen ikuspuntutik bestea. Helburuak eta aplikazio esparruak oso antzerakoak dira batean zein bestean. Kontseiluarenak metodoa dauka berria. Kanpotik eragin beharrean, gizartea bera egiten du protagonista, gizartea da zer konpromezu eta nora artekoa hartu nahi duen erabakitzen duena.

Gainera derrigor dago biak uztartu beharra, ezin dugu bi planekin aritu. Amaitu beharra dago laurogeigarren hamarkadan, instituzioen protagonismoa tarteko hasitako inkomunikazioaren kulturarekin. Herri mugimenduek eta erakundeek elkar ulertzea ezinbestekoa da. Biak dira beharrezko, bai herri mugimendu ongi antolatatu eta eraginkor bat, bai botere politikoa ere. Ulertu behar dugu euskara ahulegia dela armatzat hartzeko.


Ungi antolatatu eta eraginkor bat, bai botere politikoa ere. Ulertu behar dugu euskara ahulegia dela armatzat hartzeko.

Eta Udala Euskalduntzeko Plana zela doa?

Ongi. Nahi baino motelago ziur aski, baina ongi. Ez da erraza hainbeste urtean gaztelera jardun duen erakundea derrepentean euskalduntzea. Zerbitzua euskaraz emateko moduan gaude. Idatzizkoan bai behintzat, eta ahozkoan ere gehienez bai. Egia da urratu izan ditugula zenbaitetan hizkuntza legediak zehazten dituztenak eta alde egiten digula tarteka gaztelera hutsezko idatziren bateg, baina ahalegintzen gara, eta neurriak ere horretarako apropos ezarritakoak ditugu. Euskara administrazio-lanarako hizkuntza bihurtzeko bidean ere egin dugu aurrera pausoren bat. Gutxiak diren arren, badira euskara hutsean burutzen diren lan edo espedienteak.

Sarri, gainera, asko esan nahi du herritarrek zein exijentzia egiten digun. Administrazioaren euskalduntzean zer esan handia dauka herritarrek egin dezakeen eskaerak. Herritarrek euskarazko tratatu eta harremanerako eskaera areagotzea akuilu izango da administrazioaren euskalduntze prozesuan.

Ze zerbitzu praktiko eskeintzen zaizkio Plaentxiarrei Udaleko Euskara



Ugaraxo



2.002ko maiatzaren 3a 7. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



Argazkian Haur Hezkuntzako gaztetxoak .

URTAROAK ETA AHO HIZKUNTZA LANTZEN

Aurten, zuhaitz batek urteko garai ezberdinetan zehar jasaten dituen aldaketen bitartez, urtaroak landu ditugu. Udazkenean, pago, piñu, gaztaiñondo, haritz eta intxaurrak landatu genituen, neguan paperezko zuhaitzari hostoak kendu genizkion. Udaberrian, berriz hostoz eta lorez jantzi dugu zuhaitza, udan fruituak hazi eta udazkenean batu ditzagun.

Antzerki bat ere egin dugu. Txoria eta Zuhaitza izena duena. Antzerki honekin naturan gertatzen

diren kontuak ezagutzeaz gain euskera eta aho hizkuntza landu nahi izan dugu. Nahi duguna nahi dugun moduan esateko eta adierazteko gaitasuna lortzeko asmoarekin.

Aupa natura !

Aupa euskara!

2

Ugaraxo



SENDABELARREN HIZKI-SOPA


T	K	U	K	U	P	R	A	K	A
U	A	A	X	T	P	B	R	I	T
R	M	E	N	D	A	E	R	O	K
Z	A	I	N	G	O	R	R	I	A
P	M	T	X	I	T	B	O	K	A
M	I	T	X	O	L	E	T	A	K
T	L	L	E	O	L	N	I	K	A
R	A	S	U	N	A	A	B	D	E

HITZAK: MENDA, ASUNA, KAMAMILA, BERBENA, KUKUPRAKA,
SAN ROBERTOREN ZAIN GORRIA, MIXOLETA

LANDAREAREN ZATIEN GURUTZEGRAMA

- 1) Mendian, lorategietan, bide ertzetan, leihoetan eta balkoietan egoten da. Koloretsua eta oso-oso polita da.
- 2) Landarearen zati honek kolore politak ditu eta usain gozoa du.
- 3) Lorearen erdi-erdian aurkitzen dira eta gehienetan pilatuta daude. Hauen bidez lore gehiago sortzen dira.
- 4) Lurretik ateratzen den kirtentxo da. Aldamenetan hostoak ditu eta goi aldean loreak.
- 5) Landarearen aldamenetan egoten dira luzexkak, motzak, txikiak,...Landareak arnasa hartzen du bertatik.
- 6) Lurraren azpian daude eta lurretik zurrupatzen dute behar duten ura, bitaminak eta ongarrri guztiak.

- A) Landare batzuk dute eta luzakin bakarra dute lorearen erdian.
B) Erleei asko gustatzen zaie. Gozo-gozoa da.



Udalekutara joateko asmorik bai?

Hodayfa Hina 8 urte

Berrizera juateko izena emon dot, oporrak ondo pasatzeko asmuakin, hola lagun berri pilua egin ahal izango dot.



Ane Kintanilla 9 urte

Berrizera noia beste lagun batekin, han lagun berririk eitteko eta hola herrixan ez aspertzeko.



Imanol Heras 9 urte

Bernedora juteko apuntau naiz, politta dalako eta jende pilua egongo dalako eta oso ondo pasauko dotelako.



Ohiane Alberdi 9 urte

Ni Berrizera noia. Han lagunak eitteko asmua daukat eta jolasian ibiltzekua bebai, nahixau dot udalekuetara juatia, herrixan geratzia baino.



Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,

DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora

eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

Irati Gil Altuna

Erantzuna: Jose Bixente

Saria IRATXO dendan eskatu

Esaxozu... (amodiozko, zorion agurrezko.... mezuak)



Garazi A. eta Irune O.:soraluzeko mutil martxoso, guapo alai eta majueri, Aupa makinaz!! Segi HORRELA. Alana B. eta Naiara K.: Soraluzeko bi mutil guapoeneri tios buenos!! Jarraitxu holako guapuak eta majuak izaten. Maite:ikastola larunbat eta igandetan eukitzia eta beste egunetan ez. Ohiane A. eta Ane Q: Andereñoeri, etxekolan gutxiago jartzia. Katariño:ikastola egun gutxiago eta etxeko lan gutxiago egotia. Ane, Leire, Maitane, nekane eta Irene:Polikiroldegia konpondu eta Ezozki bideko karretera eta parkia oso polita geratzia eta bukatzia. Idoia C., Enara P. eta Oihane V.:Soraluzeko mutil guapo eta sexieri muxu handi bat. Ainhoa eta Eider:Gure tio Jose Luis, tia Loli eta gure lengusiña Anerentzako maitasunez muxu handi bat.

4 Ugaraxo Eskolarteko 22. Bertsolari Txapelketara 25 Plaentxiar

Dagoeneko heldu da 2.002. urteko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak antolatuta, Bergaran maiatzaren 24 an jokatu den kanporaketan hartuko dute parte 25 plaentxiarrak (idatzizko bertso paperetan). Hauek dira izenak; Eneko A., Jon, G., Haritz L., Oier F., Iker B., Ibai K., Beñat S., Gaizka A., Migel B., Oier A., Aitzol P., Beñat A., Aitor U., Josu U., Goretti G., Iñaki A., Maite K., Jone O., Argoitz A., Unai S., Ikerne L., Ander E., Markel A., Inazio E. eta Eneko B. Azken bi hauek bapateko mailan hartuko dute parte. Ekainaren 7an finala jokatu da Zumarragan eta harako autobusa antolatuko du bertso eskolak. Zerrenda honetatik kanpo dagoen norbaitek txapelketan parte hartu edo saioa ikustera joatea nahi balu 605 706 086 telefonora deitzea besterik ez du (Egoitz).



Joan zen urtean Elgoibarko kanporaketara joan ziren Soraluzetarretako batzuk.



Autobusean giro ona izaten da nagusi.



Eskolarteko Txapelketara juatia nahi dabenak, eskolan emon irakasliai telefono ta izenak. Bergarara ta Zumarragara pozik juango garenak izango gara Gipuzkoako bertsozalerik gaztenak.

Eskolarteko txapelketara bi plaentxiar badoaz, onenaren zain dagon txapela etxeratzeko asmoaz. Eneko eta Ina eizue ahalegina egingo dogu pankarta Soraluzetik joango gara afizioa galanta.

Zerbitzuaren partetik?

Oraintxe hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzua da eskaintzen duguna, doakoa. Eta horrekin batera dirulaguntzak, euskara ikastekoak zein euskaraz ikastekoak. Kultur zein aisia zerbitzua ere dextentekoa egiten da, eta kalitatezkoa..

Euskararen Udal Ordenantza noiz onartu zen? Zer da? Ze ekarpen nagusi egin ditu?


Biziberritze Planarekin batera onartu genuen, garai beretsuan, eta lehendabizikoari lege oinarria ezartzea du, besteak beste, helburu. Ordenantzak arautu egiten du nolabait hala euskararen erabilera, nola beronen sustapena. Udalaren zereginak zehazten ditu batez ere.

Udalan euskararen normalizazioaren kontrako jarrerarik sentitu duzu?

Hemen ere denetik dago, sutsuagoak eta epelagoak. Nik orokorrean ez daukat kexa handirik. Hizkuntza Politika ezarri didatenak, hiru izan ditut lau urte haue-tan eta guztiekin moldatu naiz ongi. Ahalegin ekonomikoa ere dezentekoa egiten du Udalak hizkuntzari dagokio-nean.

Orokorrean zelakoa da euskarak Soraluzen bizi duen egoera?

Txarra denik esaten ez naiz atrebitzen, sasoi kaskarragoak ere biziko zituelako ziurrenik, baina kezkatuta nago. Erabilerak nekez egiten du gora eta ezagutzen ere nago atzera ez ote gabiltzan. Hazkunde begetatiboa, jaiotza eta heriotzen arteko aldea, negatiboa daukagu; eta hildakoen artean euskaldunak gehienak. Migrazio saldoa oraintxe ari da orekatzen, baina datozenak ez dira euskaldunak, eta askok ez dute ikasiko. Ikastetxeen arteko bat egitea ere momentuan kalterako gertatu da, lehen bi hizkuntza komunitate bereiztuak zirenak bakarria bihurtu dira eta nahasketa horretan gaztelera nagusitu da. Euskalkia ere eskasagoa da orain egiten dena, nahasketa handi samarra dago.



Mikel Leunda Udal Bulegoko lehiatilan.

“Erabilerak nekez egiten du gora eta ezagutzen ere nago atzera ez ote gabiltzan.”

Zela dago zure ustez Soraluze Euskalgintza mailan?

Herri gutxi ezagutu ditut horrelakoak. Ez nuen uste bere txikian hain herri bizia izan zitekeenik hau. Edozein ekintza antolatzen duzula beti juntatzen da taldetxo bat. Sasoiatsu ikusten ditut euskararen gizarte erakundeak, baita euskalgintzatik kanpokoak ere. Hamai-ka lagun dago hemen behar besteko eskerronik gabe ziur aski euskararen aldeko lanean ordu mordoxka egiten duena.

Ba al dago harremanik Udala eta Euskalgintzaren artean?

Harremana badago, eta ona gainera. Nik uste gauzak ongi egiten gabiltzala. Protagonismo eta zeloak alde batera uzten jakin dugula iruditzen zait, eta hori mesedegarria gertatu da. Oraintxe Eus-

kararen Aholku Batzordea dugu bilgune. Helburu amankomuna duten proiektuak konpartitzeko asmoarekin eratu genuen. Erakunde ezberdinen ahaleginak eta ekintzak aztertu, bideratu eta koordinatzen ditugu bertan. Biziberritze Plana bertan diseinatu genuen eta elkarrekin egiten diogu jarraipena.

Zer gelditzen da egiteko?

Mundua. Asko dudarik gabe. Eta ez dakit inoiz lortuko dugun. Ez dakit inoiz iritsiko garen euskara normalizatzerara, baina ahalegina egin beharra dago.

Gustoko omen duzu Soraluze?

Begira, herri zatarragoa zela uste nuen. Bariante gainetik ikusten nuen Bilborako bidean eta Ezosi bideko etxe horiek negargurea ematen zuten. Baina herria bera ez da itsusia. Kasko aldeak badu halako enkantu bat. Zuloa da, hori bai, apenas dago lekurik, apenas zabalgunerik, kosta egiten da eguzkia ikustea. Eta giroa polita, atsegina. Zer esango dizut ba. Niri jaten herri honek ematen dit eta ezin esango dut gustokoa ez dudarik. Nik esker hitzak baino ez ditut herri honentzako.

“Hamaika lagun dago hemen behar besteko eskerronik gabe ziur aski, euskararen aldeko lanean ordu mordoxka egiten duena”

Zela ikasi duzu horren bizkor eta horren ongi Soraluzeko euskalkia?

Nahi bai ikasi izan banu. Zaila da. Nire euskalkitik oso diferentea da. Egia da jarri ere ez naizela egin ikasten, ez baitakit noiz arteko lana izango dudan Soraluzen. Esaldi laburrekin eta hainbestean moldatzen naiz, baina hortik aurrera batez. Hitanoa eta azentua egiten zaizkit zailen. Bizi ere kanpoan bizi naiz eta horrek ez du laguntzen.

Plazer bat izan da. Berdin.

Egoitz Unamuno

FER. S.A. Industriak
Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Juan Mari Arraindegia
Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Txirrindularitza

23 urtez azpiko Afizionatuendako V. Lasterketa

Aurreko urteetan moduan aurten ere maiatzaren 12an ospatuko da afizionatu mailako herrian daukagun lasterketa bakarra. Lasterketak 120 Km-ko ibilbidea izango du. Ibilbide gogorra izango da. Azken urteetan irabazle izan direnei begiratuta, hirurak profesioaletara pasatu dira; Samuel Sanchez (Euskaltel), David Herrero (Euskaltel) eta Jonathan

Gonzalez (O.N.C.E).

Lasterketari arratsaldeko 15:30-etan emango zaio hasiera eta bukaera 18:30-tarako aurrikusten dute antolatzaileek. Antolatzaileek esan digutenez bolondresak behar dira eta norbaitek interesa balu, 14:00-etan azaldu behar luke.

Xuban Catalan

Judoa

Cristina Hernandez garaile Gipuzkoako Txapelketan

Apirilaren 20-an, Mutrikun jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan, Cristina garaipena lortu zuen eta honela bere kirol "curriculum"-a zabalduz jarraitzen du. Orain bere esperantzak Euskadiko Txapelketan jarriak ditu eta momentu ezin hobean aurkitzen da.. Zorionak!

Futbola

Sorak pausu ikaragarria eman zuen kategoria mantentzeko

Soraluzeko erregional mailako taldeak garaipen oso garrantzitsua lortu zuen pasaden larunbatean Kilimon talde mendotarraren aurka (2-0). Garaipen honekin salbaziorako oso garrantzitsuak diren hiru puntuez aparte puntu batetara zeukan Kilimon laura hustea lortu du. Afizionatuen aldetik Sorak ezin du kexurik izan herriak erantzun ona izan zuelako eta Ezoziko futbol zelaian denboraldiko sarrerarik onena egon zelako. Orain etxean gelditzen zaizkion bi partiduetan emaitza onak lortuta (Egoibar eta Gazteak), Sorak oraindela hilabete batzuk ezinezkoa zirur-



Sora eta Kilimon taldeak futbolzelaian. diena lortuko du, kategoria mantentzea.

Realzale eta Atletikzaleen arteko partidua

Iturri fidagarriek Pil-pileani jakinarazi diote, herriko Errealzale eta Atletikzaleen arteko partidu bat prestatzen dihardutela plaentxian (Ind. eta J.G.). Partidu hau Ezoziko futbol zelaian jokatu litzateke eta sarrerekin batutako dirua Sorari emango liokete. Oraindik ez omen da talderik osatu baina uda amaitu aurretik, 20 jokalariz osatutako bi talde egin eta partidua jokatzeko asmoa dute.

Pelota

Soraluzek ez du Herriarteko Txapelketan parte hartuko

Soraluzeko herriak ez du aurtengo Gipuzkoako Herri-arteko Txapelketan parte hartuko eta beraz joan zen urteko txapela ezingo du defendatu.

Ihaz, historian lehen aldiz, Soraluze Gipuzkoako Herriarteko txapelaldun izan zen. Soraluzetar guztiok daukagu gogoa ihazko urtarrilaren 8-a, hau sufri-menduz eta larritasunez betetako egun pozgarri bezain gogoangarria izan zen Soraluzeko herritarrendako. Aurten ordea, ez dugu halakorik bizitzeko aukerarik izango, Soraluzek ez du-eta txapelketan parte hartuko. Parte ez hartzearen arrazoia, pelotari nahikoa ez izatea

da. Ihazko ekaina ezkerko polikiroldegia itxi zenetik, herria ganorazko pelotalekurik gabe geratu da. Pelotari gazte eta nagusi gehienek, beste herri batzutan egin dituzte euren entrenamenduak baina kadete mailako pelotariak ez dute horretarako aukerarik izan eta azkenean Soraluzen maila honetako bi pelotari baino ez dira gelditu. Txapelketa jokatu ahal izateko hiru (bikotea eta ordezkoa) pilotari behar direnez Soraluze izena eman barik gelditu da.

Bergara Hiria Txapelketako final laurdenetan: Huizi-Laskurainek 22 eta Amarika-Bengoak 9 egin dute.

Partehartzea bikoiztu da pelota txapelketan

Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketan 65 pertsonatik gora eman dute izena. Antolatzaileak oso gustora daude kopuru honekin baina oraindik jende gehiago apuntatuko dela uste dute. Maiatzaren 8an arratsaldeko 8:30etan bikoteak zozketatu eta partidu egunak zehazteko bilera egingo dute Gaztetxean.

"Bularreko minbizia sasoiz antzeman beharra dago"

Joan zen asteazkenean, apirilaren 26an, hitzaldi informatiboa eskeini zuten kiroldegian Gipuzkoako institutu onkologikoko arduradunek. Hitzaldia- ren helburua, elkarte honek Plazent- zian martxan jarriko duen programaren berri ematea izan zen, eta batez ere emakumeak kontzientziatzea aldiroko azterketa medikuen garrantziaz.

"Askotan," adierazi zuen Mitxelena doktoreak, "emakumeok, arazoa ez-iku- si egiten dugu, eta beldurraren eraginez azterketa medikuak saihesten ditugu". Hori da hain zuzen ere programa hone- kin lortu nahi dena: emakumeek aldir- o ginekologoarengana joateko ohitura hartzea, minbizia sasoiz antzematzen de- nean osatzen da eta errezen. Datozen egunotan, 50 eta 64 urte bitarteko ema- kume guztiak jasoko dute etxean gine- kologoarengana joateko deia, emaku- mearen adin tarte hori da eta minbiziak gehien astintzen duena.

"Emakume garen aldetik, bitziza osoan izango dugu arriskua bularreko minbi- zia izateko"

Luze jardun zuen Mitxelena dokto- reak minbiziak, autoesplorazioak, ikert- zailek aipatzen dituzten "arrisku fakto- reez" eta baita minbiziaren historia ere. Bere hitzetan, "Azken 40, 50 urteetan minbizi kasuak asko ugarritu badira ere, ez da gaixo berria; 3.000 urteko aintzi- natasuna badu gutxienez, sasoi hartan momifikatutako emakume bati antze- man diotenez. **Zergatik ugaldu da az- ken urteotan hainbeste bularreko minbizia?** Batez ere, sasoi batean hilga- rriak ziren gaixoak (neumonia, tuberku- losia...), gaur egunean kontrolatzen di-



Mitxelena doktorea eta Txaro Beobide, bularreko minbiziari buruzko hitzaldian

tugulako eta honek aukera ematen di- gulako luzaragoan bizi ahal izateko. Honek esan nahi du minbizia harrapat- zeko aukera potentzial haundiagoa dau- kagula"

"Arrisku faktoreak" ere hizpide izan zituen Mitxelena doktoreak. **"Jakín ez dakigu zergatik agertzen den bula- rreko minbizia,** baina badaude estatis- tika batzuk erakusten dutenak badirela ezaugarri batzuk, faktore batzuk, minbi- zia izateko arriskua areagotzen dutenak. Horiek dira Arrisku Faktoreak".

Hauek dira labur-labur doktoreak ai- tatutako batzuk: **adina** (gaztaroen eta zahartzaroen gutxien. Menopausa ga- raian gehien), **arraz**a (zuriengan gehien, beltzengan gero, eta Asiarren- gan gutxien; teoria batek dio soja asko

jaten dutelako dela), **familia** (ez da he- reditarioa, baina frekuentzia haundia- goz gertatzen da familian kasuak dituz- tenengan), **ugalketa** (gaztetako haur- dunaldi bat babeslea izan daiteke. Haur- rik ez izateak arrisku frekuentzia are- agotu dezake. Monjeri eginiko azterketa batek datu horiek ematen ditu)

Hitzaldia bukatzeko, adin desber- dineko emakumei azterketa medikoak zein maiztasunez egin behar lituzketen gomendatu zien." 20 urtetik aurrera bu- larraren autoazterketa hileroko egitea ko- meni da. 30 urtetik aurrera urtean behin azterketa medikoa egin behar da. 40-50 urteen bitartean 5 urtean behin mam- ografia, eta 50 urtetik aurrera 2 urtean behin".

Jon Basauri

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Euskararen erabilera gaztetxoengan



Azken hilabeteotan, Placentxi Herri Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleen euskararen erabilera maila neurtzeko azterketa batzuk egin dira. Ondorioak honako hauek dira:

	EUSKARA	ERDARA
SARRERAN	% 48,08	%51,91
JOLASTOKIAN	% 55,62	%44,37
IRTEERAN	%54,58	%45,41

Orokorrean, euskararen erabilera, erdararen erabilerarekin parekatuta dago, erdiz erdi.

Zikloka begiratuta:

1. ZIKLOAN: Euskara: S= % 42,10 / J= % 38,46 / I= % 46,34

Erdara: S= % 57,89 / J= % 61,53 / I= % 53,65

Nesken artean erdara da nagusi eta esan liteke ziklorik ahulena dela.

2. ZIKLOAN:

Euskara: S= % 34,61 / J= % 58,51 / I= % 69,82

Erdara: S= % 65,38 / J= 41,48 / I=

% 55,35

Sarrera irteeretan erdara da nagusi.

3. ZIKLOAN:

Euskara: S= % 61,62 / J= % 66,66 / I= % 69,82

Erdara: S= % 38,37 / J= % 33,33 / I= % 30,17

Euskaraz erdaraz baino gehiago egiten da.

Ihazko kurtsoarekin alderatuta ez da aldaketa aipagarririk izan, irteeran euskarak behera egin duela eta jolastokian gora. Kezkatzekoa.

Musika Eskolakoak Zamudion



Soraluze Musika Eskolako 16 ikaslek parte hartu zuten joan zen apirilaren 21ean Txorierrin Zamudion egin zen Euskal Herriko Trikitixa Egunean. 16 ikasle eta 32 guraso joan ziren Zamudiora eta eguna soinu eta panderoz jantzi zuten. Datorren urtean Azkoitian egingo da Trikitixa Eguna eta hara ere joango dira Musika Eskolako trikitixa taldekoak. Oraindik garaiz zaudete Azkoitiko zitarako soinua jotzen ikasteko.

Maria Luisa Blascoren Margolanak Eibarko erakusketan



Maria Luisa Blasco Plaentxiar margolarixak "Los Girasoles" margolana izan dau erakusgai Eibarko portalean Eibarko Arte Elkarteak antolatuta daben erakusketan. Datorren hilabetean, Maria Luisa Blascok Eibarren egingo dan beste erakusketa baten parte hartuko dau. Kulturalaren Urrezko Ezteien ospakizuna dela eta Topaleku elkartiak antolatuko daben erakusketan hain zuzen. Zorionak.

Euskararen ofizialtasunaren alde

Euskal Herri osoan euskara ofiziala izan dadin eskatzeko; maiatzaren 11an Hendaia(Iparralde), Irun (EAE) eta Endarlatza (Nafarroa) lotuko dituen Giza Kate erraldoi bat egiteko deia zabaldu dute euskalgintzako hainbat eragilek. Soraluzetik, EHE, AEK eta Pil-pileanek antolatutako autobusa pasatuko da, 15:45ean. Izen ematea: 3 (langabetuak) 6 euro (landunak) kostako da. Gila, Gaztelupe eta Arrano tabernetan.

Herri Urratsera autobusa

Iparaldeko Ikastolen aldeko jaia ere gero eta hurbilago dago. Maiatzaren 12an izango da aurtengo Herri Urrats eta Soraluzetik autobusa izango da joan nahi duen guztiarendako, Pil-pileanek eta Istitutuko Euskara Batzordeak antolatuta. Izen ematea, 7 euro kostako da eta txartelak; Gaztelupe, Gila eta Arnoan jarriko dira salgai.

Txan Magoa

Datorren Maiatzaren 14an arratsaldeko 17:00etan, Txan Magoa izango da Plaza Barrian. Txanek, magia ikuskitunik ederrenak eskeiniko ditu euskarazko hitz magikoak erabilia, "Artxila mortxila!".

Bergaran Erromeri Eguna

Hilaren 11an, zapatuan egingo da Bergaran 2.002ko Erromeri Eguna. Trikitixaz alaitutako eguna izango da, Euskal Herri guztitik etorritako trikitizaleek ospatuko dutena. Soraluzetik Urrats Dantza Taldekoak eta Pil-pileanekoak 10:30etan aterako dira Gila zubitik.

Amodio Gutunen sari banaketa

Aurtengo Amodio Gutunen sari banaketa Kantu Afarian egingo da. 5 Partehartzaile izan dira bakarrik eta litekeena da sariren bat eman gabe gelditzea. Epailleek; gutunen orijinaltasuna, hizkuntza zuzentasuna eta ulerterraztasuna baloratuko dituzte erabakia hartzerako orduan.

Alana Berraondo

"munduko gauzarik inportantiena,bizitza bera"

Hamabi urteko neska kirolzale politt honek, baloia astintziari laga dotsa, momentu baten pil-irakurlekin jarri eta bere berezittasunak kontatzeko.Izandako lau berbak argi laga dittue Alanaren erretratuaren osagarri-rak...bizixa,goxua,irrifartsua,alaia eta bihurri xamarra...

-Zaletasunak

Futbola eta pelotia

-Koloria, lekua,erropia, abestixa, pelikulia, zenbakixa eta animalixia

Urdina,Paris,txandala,Hemendik At-en abestiren bat,goenkale,3^aeta txakurra.

-Hemendik 20 urteko zelan ikusten dozu zure burua

Ez dakit ba...igual taberna baten lanian, ezkondu eta pare bat seme-ala-bakin.

-Bapo geratzeko moduko bazkarixa

Frituak,oilaskua eta gatzatua. Erateko, kas naranja.

-Zeri ez zenkixoke ezetzik esango

Futbol partidu bat jokatzia.

-Biozu...

Osasuna.

-Munduko gauzarik garrantzitsuena

Bizitza bera

-Noiz,nora,zeinekin eta zertara

Nausittan, irla batera, nobixuakin egotera.

-Ze eruangozinuke irla horretara ba...

Erropia,janarixa eta dirua.

-Egun biribila

Goizian mendira juan arratsaldian lagunekin ibili eta gabian parrandia.

-Zeri dotsazu bildurra

Ez dakit, lehoieri edo...

-Zer emongo zenduke zeren truke

Euro bat, miloi baten truke.

-Ezin dozu jasan

Pertsona batzuk.

-Bitxikerixaren bat

Txabolara bidian gindoiazela ohol

Bertso Begiz

*Beti bezala irriparretsu
inguratu da Alana.
Bi minutuan geldu eukitzen
ene, zer nolako lana!
maite dozu kirola!
pelota ta futbola!
ta nobixua ere nahi.
Zuk nahi dozuna lortuko dozu
eta egon zaitte lasai.*

*(Iparragirre abila dela)
Etxebarri*



Alana Berraondo

zahar bat hartzera juan eta blaust!!!! ohol eta guzti asunartera jausi nitzan luze luze.Etxera juan bihar izan nitzan pomadia emotera.

-Bukatzeko, txistia

Badoia piano-jotzaile bat hotel bate-ra eta: Piano-jotzailia naiz eta pianodun gela bat nahiko neuke.pianua joteko.

Emoten dotsez giltzak eta hor dator

kitarra-jotzaile bat hotel horretara gela eske.Azken honek be giltzak hartu eta gora.Halako baten, hor nun datorren bikote bat gaba pasatzera hotel berdiner, giltza eskatu eta gelara honek be... Eta ezetz jakin gabian ze abesti entzun zan... nanananana trintrin aaaai aaaai!!!!!!!!!!!!,nanananana, trintrin aaai aaaai!!!!!!!!!!!!

Gururu



CRUZ
ELECTRONICA

Mikel Cruz





ORDENADORE PERTSONALAK
INPRESORAK - INFORMATIKA

Santa Ana, 25
Tel.: 943 75 13 35 Faxa: 943 75 3019
Eskuko telfnoa: 630 35 82 95
20.590 SORALUZE



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Kontu zaharrak

Eguzki-erlojua

Pentsatzen dot nunbaiten jasota egongo dala. Etxaburueta aldera begira zeguan Erregetzeko lehenengo pisuko horma baten zeguan, ordua urtian bi bidar aldatzen ez zan denporetan, bere arabilgarritasuna izango zeban. Tailatutako zenbakiz gain, Carlos IV erregian oroimenez, harri gainian landutako inskripziño bat be bazeukan, bailarako armagintzako gremio-industriako zerbitzu zentrala batzen zeban eraikin haundi hau egin zan denporan Carlos IV zan-eta errege. Jasotzen ziran eskaera garrantzitsuen aurrian, logikua zan era honetako eskaintzak egittia, Errabal kalia lehenago zeguan Errege-Etxian aurrian ordura arte egin izan zan moduan, eta kontuan hartzen bada, bailarako lantegi asko eta askori erresumiak emoten zotsala lana. Azken baten, goguan izan bihar litzake gure aurretikuak eta euren familixak lan



Erlojua merkatu-plazan dago egun.

honetetik bizi izan zirala.

Garaixak aldatu egitten dira eta baita lan-metodo eta produktuak be, baina

horrek ez leuke oztopo izan bihar, gure aurretikuak bizi izan zeben bizimodua errespetatu eta merezi daben arduraz estimatu deigun. Horretxegaitik, behin baino gehixagotan esan izan da eguzki-erlojua oindio bizi bada behintzat, soralezetar danok ikusteko moduan egon bihar litzakela oin be. Igual aintzat hartzeko ordua izango da, herrixa hobetzeko egitten diharduen lanak ikusitta. Erregetxia zeguan lautadan (oin autuendako aparkalekua dauan tokixan) oinarriren baten gainian jartziak balixoko leuke garai sozio-laboral interesgarri haura bizi izan zeben gizon emakumieri ondo merezittako omenaldi bat egitteko. Erregetxia jaso eta bota zebeneko datuak jarritta, datozen belaunaldixak eskertuko loskuezen zehaztasun interesgarrixak gordeko gendukez .

Etxazpi

Eukararen ajieri, sendabelarra



Berbeta ganorazkua
Errealak

Hiru- zero irabazi zeban domekan!
GAIZKI



Errealak
Hiru eta zero
irabazi zeban domekan!
ONDO

Tira, kasu honetan garrantzitsuena puntuak dira, salbatzeko diñot!!! Baina tira...guk, euskeraz zuzen egittia nahi badogu behintzat ... "bat eta bi, hiru eta bat"erabili bihar genduke.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

DEITTU BIZKOR
BIZKOR
943 75 13 04 ra
Aurreko
aleko irabazlia:
Ander Epelde
(deittu)

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789



Electricidad LAU, C.B.

MONTAJES - INSTALACIONES INDUSTRIALES
BOBINADOS - AUTOMATISMOS - REPARACIONES

Barrio Olea, 3 bajo
Tel. 75 12 34

20950 SORALUZE



Elgoibarko institutua
2.002/03 IKASTURTEA



Batxilergoetako Hezkuntza Eskaintza

Natur eta osasun zientzien Batxilergoa

- Zientifiko tekniko aukera - Osasun aukera

Giza eta gizarte zientzien batxilergoa

- Gizarte zientzien aukera - Humanitate aukera

Teknologi batxilergoa

* 600 ikasle inguru beraien etorkizuna jorratzen

* 45 ikasgairen eskaintza.

Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan

* Azpiegitura teknologiko aurreratuena.
Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz

* ISO 9002 kalitate ziurtagiria
Prozedura garden eta kontrolatuak

* 80 lizentziatu, ingeniari eta diplomatu
Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako prestakuntza zuzena

Batxilergorako aurrematrikula epea:
maiatzaren 2tik 10ra

Tel: 943-748019

Fax: 943-748230

e-mail: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

Kantu Afarixa 2.002 (17xan)

Rakel Pujana kantariaren laguntzarekin

(Ikastolako Frontoian, 130 lagun baietz)



2.002.urteko Pernando eta Pernanda aukeratzeko botu-kutxak izango dira Tabernetan.

Afariaren prezioa: 13 Euro

Menua: Patatak errioxar erara, solomua eta patatak, postria, kafia, kopia eta purua.

Izena emoteko: Gaztelupe, Gila eta Arrano tabernetan.

Kantu liburuxka

25 Kantu herrikoi batzen dittuan liburuxka bat banatuko jako afaltiar bakoitzari.

Afarira gonbidatutako taldiak:

Gaztetxia, Abesbatza, Dantza Taldia, Irakasliak, Udaleko Langiliak, AEK, Beti Prest, Kirolarixak, Kuadrilak, Kontrargi, Institutuko Euskara Batzordia, EHE, Pil-pilean, Futbol taldea...

Antolatzailea: Euskararen Aholku Batzordea (Pil-pilean, AEK, EHE, Ikastetxea, Institutua, Udala)

Laguntzailea: Soraluzeko Udala

Ignazio Zuloaga

B. H. Institutoa
EIBAR

BATXILERGOA

OSASUN ETA NATUR ZIENTZIEN BATXILERGOA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA

BATXILERGO ARTISTIKOA (DEBA ESKUALDEKO ZENTRU BAKARRA)

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKOA

- INGURUGIRO KIMIKA

ERDI MAILAKOA

- LABORATEGIA

HIZKUNTZ EREDUAK

HEZIKETA A ETA D EREDUETAN

(22 URTEKO TRADIZIOA KLASEAK EUSKARAZ EMATEN

**DATORREN IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA:
MAIATZAREN 2TIK 10RA**



Jardiñeta, z/g
20600 - EIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 20 83 49 Fax: 943 20 60 48
E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT